



Arartekoaren 2013ko urriaren 10eko ebazpena. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari diru-sarrerak bermatzeko errenta baten etenaldia bertan behera uzteko gomendatzen zaio hura justifikatzen duen ziorik ez dagoelako.

Aurrekariak

2012ko abenduaren 4an (...) jaunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eten ziotelako aurkeztu zuen kexa onartu genuen.

Kexagileak adierazitakoaren arabera, 2012ko abuztuan diru-laguntza jasotzeari utzi zion alde aurretik inolako jakinarazpenik hartu ez bazuen ere. Horrenbestez, Lanbideren bulegora joan zen eta bertan ahoz azaldu omen zioten ordaintzeari utzi ziotela idatziz jakinarazitako hitzordu batera bertaratu ez zelako.

Hitzordua jartzeko idazkia kexagilearen lehengo helbidera bidali zuten, nahiz eta berak aldaketaren berri eman zuen 2011ko abenduaren 11n.

Abenduaren 13an Arartekoak Lanbiderengana jo zuen espedientearen inguruko xehetasunak eskatzeko, izan ere, kexagileak aurkeztutako dokumentazioak frogatzen duenez, bai hitzordua finkatzen zuen idazkia bai etendura-prozeduraren hasieraren berri emateko jakinarazpena eta *"etendura bere horretan mantentzen"* dela adierazten duen ebazpena kontrako helbidera bidali zizkioten. Argitu beharra dago interesdunak agiri horiek lortu baditu Lanbiden eskura eman zizkiotelako izan dela.

Erantzunik jasotzen ez genuenez, agindeia bidali behar izan genuen 2013ko apirilaren 11n.

Azkenean apirilaren 16an jaso genuen Lanbideren erantzuna, eta bertan akatsaren berri ematen zigun. Idazki horren arabera, berraztertzeke espediente bat ireki omen zuten eta haren ondorioz beste idazki bat igorri omen zioten kexagileari dokumentazio jakin bat aurkez zezan. Azken idazki hori helbide egokira bidali zuten. Halaber, honakoaren berri ere eman zigun: *"Eskatutako agiriak aurkeztu ez zituenez, prestazioa eteteari eustea ebatzi genuen 2012ko abenduaren 18an, interesaduna ez baita Administrazioan agertu eta ez baitio laguntzarik eman hala eskatu dionean. Aipatu ebazpenean bidenabar, prestazioaren etetea 2013ko urtarrileko nominan aplikatzea erabaki zen"*.

Erantzunik ez dituen erakunde honek igorritako gogoetak aipatzen, bereziki etendura horren balioari dagokionean (gogoratu dezagun kexagileak aurkeztutako informazioaren eta Lanbide berak emandako erantzunaren arabera idazkiak kontrako helbidera jakinarazi zirela), 2013ko apirilaren 25ean bigarren informazio-eskabide bat igorri genuen. Azken horretan ohartarazten genuenez, gure eskuetara iritsitako informazioa ikusita, badirudi etendura hori baliogabetzen duen akats bat dagoela, interesdunak gerora obligazioaren bat bete ez izana gora-behera. Hitzek hitz, honakoa adierazi genion Lanbideri: *"Geroago berraztertzeke prozedura bat abian jarri da eta, azaldutakoaren arabera, erreklamatzailak ez du dokumentazio"*





jakin bat aurkeztu (ez da zehazten zein agiriri buruz ari den), beraz, hori ez da jatorrizko etetea konpontzeko bidea. Dena den, ebazpen horrek akats larriak eduki ditzake eta horrek haren balizkotasunean eragina eduki dezake. Beste modu batean esanda, gure ustez ezin da eraketari dagokionez zenbait akats izan ditzakeen ebazpen (etete) bat mantendu”.

Idazkiaren amaieran 2012ko abuztuan hasitako etendura-ebazpena berraztertzeo aukera aipatu genion.

2013ko abuztuaren 21ean beste idazki bat igorri zigun Lanbidek, eta bertan honakoa adierazten zigun: *“Interesdunaren espedienteaz aztertu dugu, eta ikusi dugu interesdunaren diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko prozedurari ekin zitzaiola 2012ko abuztuaren 20an, interesduna ez baitzen Administrazioaren aurrean agertu agertzeko eskatu ziotenean. Interesduna etxebizitzaz aldatu zen, eta, horren harira, paperezko dokumentuak eskatu zizkieten, haren egoera berriro ikuste aldera. Eskabide hori helbide egokira bidali zioten. Horrenbestez, hutsegite tekniko baten ondorioz bidali zioten diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko prozedura hasten zela jakinarazteko gutuna. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko prozeduran, entzunaldi-izapidean aurkeztutako alegazioak ezetsi egin ziren. Edonola ere, alegazioekin batera, interesdunak errenta hori berriro ezartzeko dokumentuak aurkeztu zituen, eta, horren ildotik, prozedura bati ekin zioten, egoera berriro aztertze aldera. Prozeduraren instrukzioan, dokumentu jakin batzuk eskatu zizkieten. Dokumentu horiek hamar eguneko epean aurkeztu behar zituen, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 71. artikuluan ezarritakoaren arabera. Epe hori amaitu zen, eta interesdunak ez zituen aurkeztu eskatutako dokumentuak. Horiek horrela, abenduaren 18an, eteteari eusteko ebazpenproposamena eman zen, “Administrazioan ez agertzeagatik eta Administrazioarekin lankidetzan ez jarduteagatik gizarteratze-gaietan eskumena duen edozein erakundek hala eskatzen duenean”.*

Gogoetak

Lanbidek hitzordua ezartzeko idazki bat igorri zion kexagileari, baina kontrako helbidera bidali zion, beraz, ez zen hitzordura agertu halakorik zeukan jakin ere ez zekiela. Halaber, zio horrengatik etendura-prozedura hasiko zela jakinarazteko idazkia bera zein “etendura mantentzea” erabakitzeko ebazpena helbide berberera igorri ziren, eta gure usteetan horrek babesgabatasun nabarmena eragin zion interesdunari.

Lanbidek emandako informazioaren arabera, akatsaz konturatu arren, ez zuten etendura berraztertu, mantendu baizik. Akatsa gorabehera, “berrikusketa-prozedura” bat hasi zuten eta dokumentazio-eskabide bat igorri zioten interesdunari, oraingoan bai helbide egokira.

1. Antzeko etendura-kasuen inguruan Lanbideri beste hainbatetan ere adierazi diogun legez, berrikusketa-prozedurak alde aurretik ezarritako etendurei



etsuta hasteak neurri horrek araudian (18/2008 Legearen 26.3 artikulua) ezarritakoa baino gehiago irautea ekar dezake: "Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da".

Ohikoa izaten den jokabide horrek hasiera batean etendura eragin zuen jatorrizko zioarekin zerikusirik ez duen berrikuspen baten mende uzten du DBEren etendura eta, ondorioz, egoera luzatu egiten da kaltetutako pertsonak hori ekiditeko zer egin ez dakiela. Espediente honen kasuan egoera hori are larriagoa da, izan ere, etendura berrikuspenaren mende dagoenez, ezin da neurria balio gabe utzi nahiz eta Lanbidek berak egiaztatu duen ez dagoela etendura hori mantentzeko inolako arrazoirik, kexagileak eskatutakoa bete ez bazuen Lanbideren jakinarazpenak okerreko helbidera bidali zirelako izan baitzen.

DBE etetea bezalako neurri bat arrazoitzen duen akats bat egoteak baina horrek inolako eraginik ez izateak babesgabetasuna sortu dio kexagileari. Horixe da, behintzat, gure ustea.

2. Lanbidek igorritako bigarren erantzunean jakinarazi zigun kexagileak aurkeztutako alegazioak ez zituztela onartu, baina ez zigun esan zergatik (bi idazki aurkeztu zituen, bata irailaren 19an eta bestea azaroaren 27an). Gure aburuz, kontu horren inguruko informazio zehatza eman beharko liguke, zaila baita ulertzea nola bota daitezkeen atzera zenbait jakinarazpen okerreko helbidera bidali direlako egindako alegazioak, baldin eta Lanbidek berak onartzen badu akats hori egin duela.

Uste dugu, gainera, alegazioei inolako arrazoirik eman gabe uko egin izanak areagotu egiten duela sortutako babesgabetasuna.

3. Lanbidek emandako informazioaren arabera, etendura oraindik bere horretan dago interesdunak ez dituelako 2012ko azaroaren 8an eskatutako agiriak aurkeztu.

Ez digu adierazi zein den aurkezteke dagoen dokumentazioa. Nolanahi ere, uste dugu ez betetze horrek ez duela jatorrian etendura eragin zuen zioarekin zerikusirik, beraz, beste prozedura baten baitan aztertu beharreko zerbait litzateke. Izan ere, kexagileak ez balio agindeiari behar bezala erantzun, gertaera horrexen ondoriozko etendura-prozedura hasiko dela ohartarazteko jakinarazpena igorri beharko zitekeen eta, beharrezkoa izanez gero, DBE eten beharko litzateke zio horrengatik.

4. Etendura-prozeduraren hasieraren berri ematen duen idazkiak "*ordainketa etetea ekiditeko*" alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea duela



jakinarazten dio interesdunari, baina hurrengo paragrafoan adierazten du *“kautelaz, diru-laguntza jasotzeko eskubidea bertan behera geratuko”* dela.

Gure ustetan, horrela jokatzekak nolabaiteko nahasmendua eragiten du, elkarrekiko kontraesanetan dauden enuntziatuak baitira argi eta garbi, izan ere, etendura ekiditeko aukeraz eta ordainketak bertan behera uzteaz ari da aldi berean.

Lanbidek okerreko zioengatik eten du DBErako eskubide bat, eta gainera kexagilearen hutsegiteren bat ondoriozta lezakeen prozedura bati lotu dio berez baliorik ez zeukan etendura hori. Nahiz eta posible den interesdunak administrazioak eskatutakoa bete ez izana, ezin da hori hartu hasierako etendura nolabait baliozkotzeko gertaera moduan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Espedientea 2012ko abuztura, hau da, kexagileari hitzordua ezartzeko idazkia igorri zitzaion egunera atzera eraman dezala, diru-laguntza data horretatik aurrera ordaintzen hasi dadila eta berriro igor ditzala espedientea osatzen duten idazki guztiak, eta horren arabera joka dezala.